musikene

**1/2012 ebazpena, urtarrilaren 18koa, Musikeneko Kudeatzaile Akademikoarena, horren bitartez definitzen baita "kolaborazio instrumentala" LOE ikasketa planean eta ezartzen baita hori antolatzeko prozesua.**

*1. artikulua. "Kolaborazio instrumental" motak eta definizioa.*
Ikasle batek ikasketa-planeko irakasgai instrumental batean duen parte-hartzeari deritzo "kolaborazio instrumentala", aldi baterako esku-hartzea izanik betiere eta irakasgai horren programa garatzeko beharrezkoa dena.
Kolaborazio instrumentala LOE ikasketa-plana osatzen duen edozein irakasgaitan eska daiteke.

Kolaborazio instrumentala ikasturtean zehar egin ahalko da, baina baita ere hainbat azterketa edo entzunaldi prestatzeko, irakasgai ezberdinetan eskatzen direnean, hain zuzen ere.

Kredituak beti izango dira hautazkoak.

*2. artikulua. Izena ematea.*
Matrikula egiteko unean kolaborazio instrumentaleko ezaugarriei buruzko informazioa emango zaio ikasleari, ikasle laguntzaileen zerrendan izena emateko onespena emanez edo ukatuz.

*3. artikulua. Jardueren proposamena.*
Izena eman duten ikasleen zerrenda ezarritakoan, laguntzaileak behar dituzten irakasleek jarduerak proposatuko dizkiete ikasleei, beraiei zuzenean edo Musikeneren bitartez.

*4. artikulua. Kolaborazio txostenak eta kredituen zenbaketa.*
1. Ikasturtea amaitu aurretik Idazkari Akademikoak irakasleei kolaborazioen txostenak bidaltzeko eskatuko die. Txosten horietan adieraziko da kolaborazioaren iraupena ordutan, lortutako kalifikazioa (Gainditua/Ez Gainditua), eta irakaslearen sinadura. Irakasleek, kolaborazio bakoitzari dagokion ordu zenbaketan, eskola-orduak eta eskola-orduak ez direnak ere jasoko dituzte; Idazkari Akademikoak dagozkien ECTS-ak esleituko dizkie (ECTS 1=25 ordu).
2. Idazkari Akademikoak ikasle laguntzaileen zerrenda argitaratuko du eta honako hauek adieraziko ditu bertan: ikasle bakoitza zein

**Resolución 1/2012, de 18 de enero, del Gestor Académico de Musikene, por la que se define la "colaboración instrumental" en el Plan de Estudios LOE y se establece el procedimiento para su organización.**

*Artículo 1. Definición y tipos de "colaboración instrumental".*
La "colaboración instrumental" consiste en la participación de un alumno en una asignatura del plan de estudios, en forma de una intervención temporal, requerida para el desarrollo del programa de dicha asignatura.
La colaboración instrumental podrá ser requerida en cualquiera de las asignaturas que conforman el Plan de Estudios LOE.
La colaboración instrumental podrá realizarse a lo largo del curso académico o bien para la preparación y participación en los diversos tipos de exámenes o audiciones que se requieran en las diferentes asignaturas.
Los créditos serán siempre de carácter optativo.

*Artículo 2. Inscripción*
En el momento de proceder a la matriculación, el alumno será informado de las características de la colaboración instrumental, dando su conformidad o no para ser inscrito en las listas de alumnos colaboradores.

*Artículo 3. Proposición de actividades.*
Establecida la lista de alumnos inscritos, los profesores que requieran colaboradores podrán proponer actividades al alumnado, bien directamente o bien a través de Musikene.

*Artículo 4. Informes de colaboración y cómputo de los créditos.*
1. Antes de finalizar el curso, el Secretario Académico solicitará a los profesores que envíen los informes de colaboración, reflejando en los mismos la duración temporal de la colaboración, expresada en horas, la calificación otorgada (Superado/No Superado), así como la firma del profesor. El profesorado en sus informes incluirá los tiempos lectivo y no lectivo en el cómputo de horas asignado a cada colaboración; el Secretario Académico adjudicará los ECTS correspondientes (1 ECTS = 25 horas).
2. El Secretario Académico hará pública la lista de alumnos colaboradores con indicación de la asignatura en la que han colaborado, la

irakasgaitan aritu den laguntzaile, lortu duen kalifikazioa eta zenbat kreditu lortu dituen. Ondoren, erreklamazioa eta aldaketa-eskaera egiteko epea ezarriko da. Berori amaitutakoan ez da inolako erreklamaziorik onartuko, ez irakasleen ezta ere ikasleen aldetik.

3. Erreklamazio-epea amaitu eta onartutako aldaketak egiten direnean, kredituak horretarako prestatu den dokumentu batean adieraziko dira.

4. Matrikula egiterakoan ikasleak aukeratu ahal izango du lortutako kredituak espedientean sartuko diren (ikasturte horri dagozkion hautazko irakasgaien matrikula egin ordez) edo urrengo ikasturterako gordetzen dituen. Soberakina Gradu amaierako Tituluaren Gehigarrian sartuko da.

5. Musikenetik beste ikastegi batera espediente-aldaketa eginez gero, ikasleak aukeratuko du kolaborazioengatik eratorritako kredituak espedientean sartzen diren ala ez.

6. Kreditu horiek "Kolaborazio Instrumentala" izen orokorraz bilduko dira ikasleen espedienteetan. Kreditu mota (hautazkoa), kolaborazioa egin den ikasturtea, kalifikazioa eta ECTS kopuru osoa ere adieraziko dira.

*5. artikulua. 2011/2012 ikasturtean zehar epeak*

1. Ekaineko deialdia

- 2012ko maitazak 15: irakasleek ikasle languntzaileen eta kolaborazioa egin (edo egingo) duen irakasgai edo azterketen zerrenda bidaltzea.
- 2012ko maitzak 31: irakasleek irakasgaietan kolaborazio txostenak bidaltzea. Karrera amaierako azterketen kasuan, azterketaren aktarekin batera emango dira.
- 2012ko ekainak 25: Idazkari Akademikoak *musikenet*-en emango du argitara ikasleen zerrenda, zein irakasgaitan parte hartu duten, lortutako kalifikazioa eta eman zaizkion kreditu kopurua adieraziz.
- 2012ko ekainak 26-uztailak 2: erreklamazio eta aldaketa-eskaerak egiteko epea.
- 2012ko uztailak 3: erreklamazioei buruzko erabakia.

2. Iraileko deialdia (karrera amaierako azterketak)

- 2012KO uztailak 25: irakasleek ikasle lagutzaileen zerrenda ematea.

calificación obtenida y el número de créditos concedidos. Con posterioridad, se establecerá un plazo de reclamación y solicitud de modificación, finalizado el cual no se admitirá ninguna reclamación ni de profesores ni de alumnos.

3. Finalizado el plazo de reclamaciones y efectuadas las modificaciones aceptadas, se procederá a incluir los créditos en una cartilla habilitada a tal efecto.

4. En el momento de la matriculación, el alumno podrá decidir si desea que los créditos obtenidos sean incluidos en el expediente (en lugar de matricularse en las asignaturas optativas correspondientes a ese curso) o si los reserva para el curso siguiente. El excedente se incluirá en el Suplemento al Título al finalizar el Grado.

5. En el caso de traslado de expediente de Musikene a otro centro, el alumno podrá decidir si desea que los créditos por colaboración sean recogidos o no en el expediente.

6. Los créditos incluidos en el expediente serán denominados genéricamente como "Colaboración instrumental". Se recogerá asimismo el tipo de crédito (optativo), el curso académico en el que se ha realizado la colaboración, la calificación y el total de ECTS.

*Artículo 5. Plazos durante el curso 2011/2012*

1. Convocatoria de junio

- 15 de mayo de 2012: envío por parte del profesorado del listado de alumnos colaboradores y de las asignaturas o exámenes en los que han colaborado (o van a hacerlo).
- 31 de mayo de 2012: envío de los informes, por parte del profesorado, de colaboración en las asignaturas. En el caso de los exámenes de fin de carrera, se entregarán junto al acta del examen.
- 25 de junio de 2012: el Secretario Académico hará público en *musikenet* el listado de alumnos, con las asignaturas en las que han participado, la calificación obtenida, y el número de créditos concedidos.
- 26 de junio – 2 de julio de 2012: plazo de reclamación y solicitud de modificación.
- 3 de julio de 2012: resolución de reclamaciones

2. Convocatoria de septiembre (exámenes fin de carrera)

- 25 de julio de 2012: entrega del listado de alumnos colaboradores por parte del

musikene

- 2012ko irailak 7: irakasleek kolaborazioen aktak ematea.
- 2012ko irailak 10: Idazkari Akademikoak kolaborazioengatik emandako kredituak argitaratuko ditu.
- 2012ko irailak 17-21: ikasleek erreklamazioak egiteko epea.
- 2012ko irailak 25: erreklamazioei buruzko erabakia.

profesorado.

- 7 de septiembre de 2012: entrega de actas de colaboración por parte del profesorado.
- 10 de septiembre de 2012: publicación por parte del Secretario Académico de los créditos adjudicados por colaboración.
- 17-21 de septiembre de 2012: plazo de reclamación para el alumnado.
- 25 de septiembre de 2012: resolución de reclamaciones

Patricio Goialde Palacios
KUDEATZAILE AKADEMIKOA / GESTOR ACADÉMICO